# OFFICE 365 ESKULIBURUA - HEZKUNTZA

Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 01 83 85 - Fax 945 01 83 35

**AURKIBIDEA**


1. *SARRERA* 3

2. *NOLA SARTU OFFICE 365en* 3

3. *ERABILERA OROKORRA* 5
   - 3.1. *Menu nagusia* 5
   - 3.2. *Ezarpenak* 6
   - 3.3. *Jakinarazpenak* 7
   - 3.4. *Laguntza* 7
   - 3.5. *Erabiltzailea* 7

4. *APLIKAZIOAK* 8
   - 4.1. *Posta elektronikoa* 8
   - 4.2. *Word, Excel, PowerPoint* 8
   - 4.3. *OneNote* 8

5. *APLIKAZIOAK GAILU MUGIKORRETAN (TELEFONOETAN ETA TABLETETAN) KONFIGURATZEA* 9

6. *BALDINTZA TEKNIKOAK* 12
   - 6.1. *Posta elektronikoaren bezeroa* 12
   - 6.2. *Web nabigatzailea* 13

## 1. SARRERA

Dokumentu honek jasotzen ditu Hezkuntza Sailaren Office 365 konfiguratzeko eta sartzeko jarraibideak.

## 2. OFFICE 365en NOLA SARTU

Office 365aren erremintetan sartzeko, sartu https://portal.office.com web orrian. Orri horretan sartu erabiltzailearen posta elektronikoaren helbidea.




“Hurrengoa” sakatuta, ondorengo orrira eramango zaitu:




Orri horretan, pasahitza sartu eta “Hasi saioa” sakatu.

Saioa hasten den lehen aldia bada, ondorengo pantaila agertuko da:




Berriro ager ez dadin “Ezarri zure egutegiaren ordu-zona” sakatzea gomendatzen dizugu. Hizkuntza eta ordu-zona aukeratzeko ondorengo pantaila agertuko da:




Hizkuntza aukeratu, “(UTC+1:00) Bruselas, Copenhague, Madrid, París” ordu-zona aukeratu eta “Gorde” sakatu.

Postaren orria kargatuko da.




Orri horretatik Office 365eko menu nagusira sartuko zara, eta bertan gainontzeko aplikazioak ikusiko dituzu.

## 3. ERABILERA OROKORRA

### 3.1. Menu nagusia




botoia (goi parteko ezkerreko izkinan) sakatuta, menu nagusira joango zara edozein momentutan:




Baita ere goi parteko ezkerreko izkinako botoitik . Hortik sartuta menu orokorra agertuko da menu zabalgarri bezala.




## 3.2. Ezarpenak

Ezarpenen botoitik  (goi parteko eskuineko izkinan), orriaren konfigurazio orokorra alda dezakezu.



## 3.3. Jakinarazpenak

 botoitik existitzen diren jakinarazpenak ikus ditzakezu: egutegiko hitzorduak, posta berrien sarrera,…




## 3.4. Laguntza

 botoitik laguntzara sartuko zara:




## 3.5. Erabiltzailea

Erabiltzailea agertzen den botoitik  (goi parteko eskuineko izkinan) erabiltzaileari buruzko informazioa ikusi, erabiltzaile-kontua konfiguratu edo saio itxi dezakezu.



# 4. APLIKAZIOAK

## 4.1. Posta







Posta elektronikora sar zaitezke web horren bidez edo bestelako posta-bezeroetan konfiguratuta.

## 4.2. Word, Excel, PowerPoint

Office mahaigaineko aplikazioen web bertsioak dira.

## 4.3. OneNote




OneNote lehenengo aldiz irekitzen denean zein den bere funtzioa galdetuko du.




Ondoren ohar-bloka irekiko du.




Ohar-blok pertsonalak eta ikasgelako ohar-blokak sor ditzakezu. Azken hauen bitartez apunteak, etxeko-lanak, materialak,… partekatu ahal izango dituzu.

## 5. APLIKAZIOAK GAILU MUGIKORRETAN (TELEFONOETAN ETA TABLETETAN) KONFIGURATZEA

Office 365 aplikazioak gailu mugikorretan (telefonoetan eta tabletetan) instala ditzakezu.

Orri nagusian “Softwarea instalatu” botoia sakatu:




Ondorengo orrian, “Telefonoa eta tableta” sakatu.




Aukeratu instalatu nahi duzun gailu-mota.




Adibidez, “iPhone” aukeratzen baduzu, ondorengo leihoa irekiko da:






botoia sakatzen baduzu, aplikazioa deskargatzeko orria irekiko da.

“Informazio gehiago” sakatzen baduzu, gailuan aplikazioak nola konfiguratu azaltzen duen leihoa irekiko da.




# 6. BALDINTZA TEKNIKOAK

## 6.1. Posta elektronikoko bezeroa

Office 365ek funtzionatzen du euskarria indarrean duen edozein bertsiorekin, luzatutako euskarria dutenak barne; kasu honetan baliteke funtzionalitate guztiak eskuragarri ez izatea.

Gaur egun Exchange Onlinek Outlookeko ondorengo bertsioak onartzen ditu:

- Outlook 2016
- Outlook 2013
- Outlook 2010 SP2 eta KB2956191 eta KB2965295 eguneraketak
- Office 365erako Mac-erako Outlooka
- Mac 2011rako Outlooka

***Oharrak:***

- Bezeroa Exchange Onlinera konektatzeko behar diren gutxieneko bertsioak eskura jartzen dira. Exchange Onlinera konektatzean erabiltzaileek esperientzia hoberena izan dezaten gomendatzen da azken Service Pack eta eskuragarri dauden eguneraketak instalatzea.
- Outlook 2010 bertsio zaharragoak dituzten Outlook bezeroak ez dira onartzen. DAV behar duten Mac sistema eragileetako posta elektronikoko bezeroak, Mac RTMrako Entourage 2008 eta Entourage 2004 bezalakoak ez dira bateragarriak.

## 6.2. Web nabigatzailea

Office 365 diseinatuta dago hauekin funtzionatzeko:

- Safari, Chrome eta Firefox arakatzaileen uneko bertsioarekin
- Microsoft Edge arakatzailearen azken bertsioarekin
- Internet Explorer 11